

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

2555

EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 25ekoa, Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariarena, zeinaren bidez sailkatzen baita Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioentzat gordeta dagoen lanpostu bat Beterri-Buruntza Mankomunitatean.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil udalerrietako osoko bilkurek behin betiko onartu dituzte Beterri-Buruntza Mankomunitatearen eraketa eta estatutuak. Horretarako, 2022ko urtarrilaren 17an, Mankomunitateko zuzendaritza-organoak eratzeko bilkura egin zen.

Horri dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak (TAOL, aurrerantzean) 3. artikulua bigarren apartatuan ezartzen duenez, udalerrien mankomunitateak toki-entitateak dira; hortaz, TAOLaren 92 bis artikulua –Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak (TAAIL) emandako idazkeran– aipatzen du toki-korporazio guztietan daudela beharrezko diren zenbait funtzio publiko, legez, Estaturako gaikuntza duten funtzionarioen administrazio-erantzukizunerako gordetzen direnak; horren ondorioz, Mankomunitatean, mota horretako funtzionarioek egin behar dituzte funtzio publiko horiek.

Aurrekoan oinarrituta, Beterri-Buruntza Mankomunitateko Batzar Orokorrak, 2022ko martxoaren 28an egindako bilkuran, erabaki zuen Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari eskatzea Idazkaritzako lanpostua, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioentzat gordea, hirugarren mailan sailka dadila.

TAOLaren 92 bis artikuluan aipatzen diren eta toki-korporazio guztietan egon behar diren beharrezko funtzio publikoak betetzen dituen lanpostuen sailkapenari dagokionez, aintzat hartuta horien gaineko administrazio-erantzukizuna Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioei dagokiela, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioako funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 8. artikulua bigarren apartatuak berriaz ezartzen duenez, udalerrietako mankomunitateetako Idazkaritzak artikulua horren lehen apartatuan aipatutako motaren batean sailkatuko dituzte autonomia-erkidegoek, haien ezaugarri propioen arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoenez indarrean legezko agindu hori garatzen duen araudi autonomikorik, mankomunitateetan aplikatu daitekeenik, 128/2018 Errege Dekretuaren 8.1 artikuluan ezarritako parametroak hartu behar dira kontuan.

Horrela, prozeduraren instrukzio-aldian, Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zitzaion txostena eman zezala Mankomunitateak egindako eskaeraren gainean; Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak txosten hori jaso du. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak aldeko txostena eman dio Beterri-Buruntza Mankomunitateko Idazkaritzako eta Kontu-hartzaitzako lanpostua sailkatzeko eskabideari.

Horrenbestez, kontuan hartuta Mankomunitatearen aurrekontua eta haren jatorrizko xedeak, Mankomunitatearen Idazkaritza hirugarren motan sailkatu behar da (Idazkaritzako eta Kontu-har-

tzailetzako azpieskalako funtzionarioentzat gordeta), eta Mankomunitateak bere lanpostuen zerrendan sartu behar du.

Horregatik guztiagatik, Mankomunitateak aurkeztutako eskabidea ikusirik, TAOLaren 92 bis artikuluekin eta 128/2018 Errege Dekretuaren 7., 8. eta 24.3 artikuluekin bat etorriz, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 11. artikulua ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Beterri-Buruntza Mankomunitatearen Idazkaritzako lanpostua hirugarren motan sailkatzea. Lanpostu hori Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako azpieskalakoak diren eta Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioentzat gordeko da.

Bigarrena.– Sailkatutako lanpostua betetzeko sistema merezimendu-lehiaketa izango da.

Hirugarrena.– Beterri-Buruntza Mankomunitateak lanpostu hori sartu beharko du bere lanpostuen zerrendan, hura bete baino lehen.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek ez dio administrazio-bideari amaiera ematen. Beraz, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Erakunde Harremanetako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; hala xedatzen da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan, hargatik eragotzi gabe zuzenbidean onartutako bestelako aurkaratze-bideak erabiltzea.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluari jarraituz, administrazio publiko interesdunek ezin izango dute administrazioarekiko errekurtsorik jarri ebazpen honen aurka. Halere, errekurtsioa jarri ahal izango dute Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien epaitegietan, bi hileko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 29/1998 Legearen 45. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraituz. Lehenago eta epe berean, Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzari eskatu ahal izango zaio ebazpen hau deusezta edo indargabetu dezala, 29/1998 Legearen 44.1 artikulua xedatzen duen bezala.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 25a.

Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendaria,
MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA.